



«La Navarra marítima» deritzan liburua



a Navarra marítima (1998) deritzan liburu hau oinarrizkoa da Nafarroako historia ezagutzeko. Agiri jatorretan oinarriturik erakusten bai digu nafarregandik Durangoko nekazari forua zer zen, baina berdin Donostia, Gasteizkoa eta abar, Inglaterrako errege Henrike II.a bitartekari zela, Nafarroaren erresuma norainokoa zen jakin ditzagun. Aldi berean deusezten ditu zenbait uste oker eta historiagile batzuren hutsak non diren agertuz.

Elkarren berririk jakin gabe, agiri desberdinak eta gutiago erabili nituen Santa María de la Asunción de Hondarribia (1998ko urte berean argitaratuan) liburuaren lehen partean inguru honetako historia adieraziz; baina ikerketetatik atera nituen argudio eta ondorioak funtsez berdintsuak direla konturatzeak poztu nau. Oker ez nenbilela jakiteaz gainera, historia ikerketatik atera nituen ondorioak indartzen dituenaz.

Tomas Urzainki eta Juan Mari Olaizolak argitara eman duten La Navarra marítima liburu hau, XVI kapitularekin, epilogo eta agirien iturri eta bibliografiak hornitzen dute. Lan bikaina benetan, agiri askoren aipamenez. Beretariko asko, zenbait egileren ikerlanetatik, ezagunak genituen, baina testuak bere osotasunean ezagutu gabe. Orain, lan horri esker, edonorrek erabiltzeko aukeran daude.

Okerrak non dauden argi dago. Zeren, ihaz, Errenteriako Udalean euskaraz eta gaztelerez Errenteriako eraikuntza Historikoak eta Edificios históricos de Rentería (1997) bi liburuen aurkezpenean, Unibertsitateko Historia Fakultatean irakasle den batek zioen, dorretxeen eraikuntzak XVI. mendean frantsezegandik defendatzeko eginak zirela. 1521ean Nafarroako Labrit printzeaz ari zen (gure E. Garibay historiagileak zioenez «el francés, General Labrit», zuen nonbait buruan). Baina Nafarroako Labrit


printzeak anaikide zituen Gaskoinen (aintzinako Wascones) eta biarnesen laguntza baizik ez zuen izan, lapurtu zizkioten lurraldeak berriz eskutu ahal izateko. Bestela, ikus eta irakur 1997an «Gaztelako erregeen menperatze hura eta XVI. mendeko gudua», Hondarribia aldizkari honen 74. zenbakiko 18. orrialdean argitaratu nuen artikulua hura. Nire hori, ez bai zen lekukotasunik gabe idatzia.

Besteak beste, argibidez, lekukorik aski eskaini zizkiguten A. Campión-ek Navarra en su vida histórica (Euskariana, novena serie. Pamplona, 1929) eta gure egunotan J.L. Orellak Guipúzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII y XV (Mundaiz. Donostia, 1987) liburuetan.

Aintzinatik Nafar erresuma noraino zen agerraraziz eta erresumaren galera arteko historia betetzen du La Navarra marítima honek, agiri zuzenak eta argudioak eskainiz. Merezki du irakurtzea, bereziki Bidasoa muga inguruetakoa biztanle direnek.

Bere edukian du erromaren garaiko Vascones eta Vasconia zena zertan zen. Gero, Erdi Aroan Iruñeko erregetza sortutik Nafarroa Euskal Herriaren buru agertuz. Hori erakusten digute ondotik sortu ziren foruak, lehenik Jakakoa eta ondotik Durangokoa, Artzeniegakoa eta abar. Eta errege Santxo VI. Jakitun harek (1150-1194) Donostia, Logroño, Gasteiz eta abar hornitu zituen foru bereziak emanaz. Gero, Gaztelako erregearen bidez herrietara zabalduko zirelarik.

Irakurgarriak dira XIII. kapituluaren lehen partean, Baionatik Mutrikuko porturainoko berriak ematen dituen eta XVI.aren hirugarrenean, non agertzen dituen inguru hauetako gora-beherak errege Katolikoengandik Karlos V. Enperadore zeritzanaren jokabideak ezagutzeko. Liburu baliosa deritzat.



Historia, den bezala da, ez bakoitzak nahiko lukean bezala. Kontuan eduki historiako garai hura ez dela gaurkoaren berdingarri. Gaur egungo ikuspegitik har genezake, baina ez gaur komeni zaigun erara, baizik nola zen agertuz. Zeren kontutan har garai haiek feudalismoaren eraginezkoak zirela eta garai bereko gizarte-giroa adieraziz, berari hertsiki loturik behar duela izan.